

Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko
abenduaren 1a
http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/

Edorta Jimenez

(Mundaka, 1953)

Irakasle eskolako ikasketak egin zituen, Euskal Filologia adarrean. Lan munduari dagokionez, gauza ezberdinetan aritu da: marinel, irakasle, telebista eta zinema gidoilari, itzultzaile eta idazle. Kazetaritza ere jorratu du: Egin, Gara eta Egunkaria egunkarietan idatzi izan ditu zutabeak. EITBko *Hau komeria!* saioko gidoilaria izan zen. Era berean, *Farenhait, Beti eskamak kentzen* eta Babel programetan lan eskarmentua du, gidoilari gisa gehienetan. *Goenkale* programako 95 kapitulutako sortze lanetan jardun zuen. Zinema gidoilari gisa, zenbait dokumentalen gidoia idatzi du: *Atuna, Sagardoa, Patxarana, Patakon, Euskal Kortsarioak* lanen gidoilari izateaz gainera, *Itsaso guztiak* urpeko munduaren gaineko proiektuan elkarrizketa eta musika saioko gidoiak idatzi zituen. Gaur egun, literaturan finkatu du bizimoduaren ardatz nagusia. Literaturan genero ezberdinak landu ditu: poesia, ipuingintza eta eleberrigintza, kronika etab. Omar Nabarro heteronimoarekin bost poesia liburu argitaratu zituen, bere literatur ibilbidearen hastapenetan.

Aizkorak eta gutunak



1828ko irailean, Bermeoko Almika auzoan, Agirretxu baserriko gizona Juan Ormaetxea desagertu egin da, eta hura hiltzearen susmagarri egin dituzte haren emazte Josepa eta alaba Maripepatxu. Ikerketak abiaturik, gorpua agertu da, aizkorakadaz hila eta baserri aurrean lurperatua, eta ama-alabak atxilotu egin dituzte, bai eta epaiketarako bidean jarri ere. Eleberri historikoa, kronika judiziala eta thrillerra konbinatu ditu egileak pasioz idatzi eta irrikaz irakurtzen den nobela hau ontzeko: ikerketaren joan-etorriak, pertsonaien gorabeherak, epaiketako xehetasunak eta erruduntzat jotakoen zigorrak: garrotez euskal lurretan exekutaturiko emakume bakarrenetakoa, besteak beste.

UDAL LIBURUTEGI NAGUSIA BIBLIOTECA MUNICIPAL CENTRAL
Alderdi Eder, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 486 **E. alderdiederliburutegia**@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Edorta Jimenezen argitalpenak (hautaketa)

Itxastxorien bindikapena (1985)
Atoiuntzia (1990)
Speed gauak (1991)
Azken fusila (1993)
Laudanoa eta sutautsa (1996)
Baleen berbaroa (1999)
Kilkerren hotsak (2003) **N JIM**
Ispiluaren katean (2008)
Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan (2003) **929 Hemingway**
Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua (2018) **N-4 JIM**
Nikole bijotzekua : 2020ko berrogeialdiko egunerokoa (2021) **M JIM**
Aizkorak eta gutunak (2025) **N JIM**

Kritikak esandakoak

“Aurrekoa bezalaxe, emakumezko pertsonaiaren inguruan ardazten da Edorta Jimenezen nobela berria. Aizkorak eta gutunak, biak ala biak izango dira esanguratsuak Bermeoko Almika auzoko Josefa Azketa eta bere alaba Maria Josefaren aurka abiatu den prozesu judizialean. Hilik agertu da Agirretxu baserriko Juan Ormaetxea. Etxe ondoko belardian azaldu da gorpua, lurperatuta, 1828ko irailean. Liburuak kasu osoa berreraikitzen du, gizonaren ustezko itomenaren berri ematen duten gutunetatik hasi eta amaren garrote bidezko exekuzioraino.

Hiru partetan bereizita dago nobela, epilogoarekin batera. Data adierazita dago pasarte bakoitzean, kronika itxura emanez kontakizunari. Hilketaren ikerketaren berri ematen da, pertsonaia ugarirengan fokua jarrita. Juan Jose Barrena apaiza, Jose Azeretxo aguazila, Jose Bizente Aurrekoetxea alkatea eta Pablo Ramon Aurrekoetxea fiskala… luzea da eleberrian agertzen diren pertsonaien zerrenda. Hori hala izanik, kutsu korala du nobelak, eta ama-alabak izanagatik protagonistak, gizartearen mosaikoa eskaintzen dute gainerakoek. Are gehiago nabarmentzen da berau, fokua pasartez pasarte aldatzen denez, kasuaren izaera soziala eta gizartearen barruko interes joko eta botere harremanak azaleratzen baitira horrela. Aurrekoetxea fiskalaren goranahia eta emakumeak leziatzeko gogoa, alkatearen auzia lehenbailehen garbitzeko asmoa edo Tomasa Renteriaren emakumeenganako elkartasuna, horiek eta gehiago azalduko dira kontakizunean. Esan bezala, kasuaren bilakaerak eta horren kontaketa multifokalak gizartearen erretratu zorrotza eskaintzen dute. Pertsonaien

karakterizazioan eta eszenetako ñabarduretan antzematen dira, besteak beste, bereizketa sozial gordina, analfabetismoa eta gizarte patriarkala.

Gordina da ama-alaben istorioa, jakingarria oso kasuak ematen duen garaiko gizartearen irudia. Interesgune nagusia den kasuaren garapenaz batera, baina, bigarren mailako pertsonaiak iruditu zaizkit interesgarrienak. Bermeotik Bilborako Errege Bidean handik hona dabiltzan pertsonaia badaezpadakoak, Pedrobaltza eta Kapelaeder; Juan eta Frantzisko Carnero borreroak; lekuko mordoa… Kontakizuna janzten dute horiek guztiek, eta aipagarria da Jimenezek bakoitzaren itxuratzean eta ahotsean egindako lana. Izan ere, Jimenezen estiloa da nobelaren dohain handietako bat, testuari une oro bizirik eusten dion prosa gihartsua. Idazkera gatzbakotik, hizkuntza porlandutik —Iñaki Segurolak esango lukeen legez— guztiz aldendutako apustua dugu Jimenezena. Orobat laburrera jotzen du autoreak eta indar handiagoa ematen dio horrek idazkerari. Azpimarratzekoa da elkarrizketetan hartutako lana, hizkera burokratiko-judizialaren euskaratze ederra eta ekitaldi itxurako eszenak euren laburrean indar doiaz hornitzeko abilidadea. Akaso pertsonaien garapenean gehixeago sakontzea zegoen, emakumezko protagonistetan ez bada —uler liteke horiek gizartearen objektu edo Beste huts gisa aurkezteko nahia—, gainerakoetan, Aurrekoetxea fiskalarekin iradokitzen den bezala, alegia.. ”

Asier Urkiza / Berria, 2025-10-19

Erabilitako iturriak

Euskal Idazleen Elkartea
https://idazleak.eus/eu/bazkideak/edorta-jimenez-ormaetxea

Elkar argitaletxea
https://elkarargitaletxea.eus/liburuak/aizkorak-eta-gutunak/

Kritiken hemeroteka
https://kritikak.armiarma.eus/?p=9259
https://kritikak.armiarma.eus/?p=9294